

N.A.O.- 31. ALDIZKARIA - 2016ko otsailaren 16a

1. ORDENANTZA

ORDENANTZA FISKALA, ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA

OINARRIA

1. artikulua. Ordainarazpen hau ezarri da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen II. Tituluko V. Kapituluko 167.etik 171.era bitarteko artikuluetan, biak barne, xedatutakoaren babesean.

ZERGAPEKO EGINTZA

2. artikulua. Zerga honen zergapeko egintza da udal mugapean zernahi eraikuntza, instalazio edo obra egitea, baldin hartarako beharrezkoa bada hirigintza edo obra lizentzia bat, lizentzia hori erdietsia izanik ala izan gabe, edo erantzukizuneko aitortpenaren edo hartarako aurretiazko komunikazioaren aurkezpena eskatzen bada, baldin eta Antsoaingo Udalari badagokio lizentzia ematea edo kontrola.

Zergari atxikitako zergapeko egintzatzat har daitezke hauek:

1. Mota guztietako eraikin eta instalazioak eraikitze obrak, eraikuntza berrikoak badira.
2. Lehendik eginak dauden mota guztietako eraikin eta instalazioak handitzeko obrak.
3. Lehendik dauden eraikinen edo instalazioen egitura edo kanpoko itxura ukitzen duten obrak, aldatzekoak edo berritzekoak, edozein motatakoak direla ere.
4. Eraikinen barreneko egitura aldatzen duten obrak, edozein izanik ere haien erabilera.
5. Behin-behinekoz egin beharreko obrak.
6. Zerbitzu publikoak paratzeko obrak.
7. Lur-erazketak, hala nola, zelaiketa, hondeaketa eta betelanak, baldin onetsia edo baimendua den urbanizazio edo eraikitze proiektu barneko obra gisa zehaztu eta programatu ez badira.
8. Finken itxiturak.
9. Eraikinak botatzea, aurri egoeran deklaratuak izan ezik.
10. Zorupea ukitzen duten obrak edo instalazioak.

11. Eremu publikotik ikusten diren propagandako kartelak paratzea, betiere lokal itxietan ez badaude.

12. Zernahi obra, eraikuntza edo instalazio, ahalmen ekonomiko baten adierazgarri diren baliabi ekonomikoen inbertsioak ekartzen dituztenak eta obra lizentziari lotuak, edo erantzukizuneko aitortpena edo aurretiazko komunikazioa behar dutenak.

SALBUESPENAK

3. artikulua. 1) Zernahi eraikin, instalazio edo obra egitea salbuetsirik egonen da baldin eta horien jabeak badira Estatua, Nafarroako Foru Komunitatea, autonomia erkidegoak, edo toki entitateak, eta baldin, zergapekoak direlarik ere, zuzenean erabiltzekoak badira errepede, burdinbide, aireportu, lan hidrauliko, hiri saneamendu edo haien hondakin uren saneamendurako, nahiz eta erakunde autonomoek kudeatzen dituzten, dela eraikuntza berriko lana, dela kontserbaziozkoa.

2) Salbuetsirik egonen dira, baita ere, ondoko jabeak dituzten eraikuntzak, instalazioak eta obrak:

a) Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioak bere helburuak betetzeko sortu dituen entitate juridikoak, betiere eraikuntzak, instalazioak edo obrak erabilera edo zerbitzu publiko bati loturik badaude.

b) Udalerrien mankomunitateak eta batasunak, betiere Uharteko Udala kide bada, bai eta helburuak betetzeko sortzen dituzten entitate juridikoak ere.

3) Tasa hauek direla medio Telefónica de España SAU enpresari egokitu lekiokkeen ordainketa dirutan egin beharreko urteko ordainaz ordezkatzeko da, Nafarroako Foru Erkidegoan Espainiako Telefono Konpainia Nazionalak behar duen tributu araubidea ezarri zuen abenduaren 29ko 11/1987 Foru Legeak xedatutakoarekin bat.

SUBJEKTU PASIBOAK

4. artikulua. 1. Zerga honen subjektu pasiboak honakoak dira, zergadun gisa: pertsona fisiko nahiz juridikoak, herentzia banatu gabeak, ondasun elkarrekin, eta nortasun juridikorik ez dutelarik, obraren jabetasuna duten bertze entitate, unitate ekonomikoa edo ondare banandua osatzen dutenak.

2. Antsoaingo Udalaren aitzinean argi eta garbi egiaztatzen ez bada obren jabea obra horretako eraikinaren jabeaz bertze pertsona bat edo entitate bat dela, obrena bera hartuko da eraikinaren jabe gisa.

5. artikulua. Zergadunaren ordezeko subjektu pasiboak dira hartarako lizentzia eskatzen dutenak edo eraikuntza, instalazio edo obrak egiten dituztenak, ez baldin badira zergadunak berak.

ZERGA-OINARRIA

6. artikulua. 1. Zerga-oinarria eraikin, instalazio edo obraren kostu erreal eta benetakoa da.

2. Kostu erreal eta benetakoa izanen da exekuzio materialari dagokiona, eta horren zati ez dira ez balio erantsia, ez tokiko tributuak edota prezio publikoak eta tokiko izaera publikoko ondareko gainerako prestazioak, horiek eraikuntza, instalazio edo obra alorrekoak badira, ez eta profesionalen

ordainsaria, kontratistaren enpresa-mozkina edo beste edozein kontzeptu, hori obra gauzatzeko kostuan hertsiki sartzen ez bada.

KUOTA

7. artikulua. Zerga honen kuota izanen da zerga-oinarriari ordenantza honetako eranskinetako karga mota ezartzetik heldu dena.

SORTZAPENA

8. artikulua. Zerga hau, eraikuntza, instalazioa edo obra hasten delarik sorrarazten da, nahiz eta hartarako lizentziarik lortu ez den edo erantzukizuneko aitortpena edo aurretiazko komunikazioa aurkeztu ez den.

ZERGAREN KUDEAKETA

9. artikulua. 1) Hasiera batean autolikidazio araubidean eskatuko da eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga, kasu hauetan: tramitazio laburtuko araubideari lotutako lizentziak, tramitazio bereziko lizentzia jakinaraziak eta erantzukizuneko aitortpena edo aurretiazko komunikazioa behar duten obrak direnean. Gainerako kasuetan, zerga arloko administrazioak egingen du behin-behineko likidazioa. Obrak bukatutakoan, zerga arloko administrazioaren eskumena izanen da zergaren behin betiko likidazioa egitea, betiere ordenantza honetan aurreikusitako kudeaketa arauarekin bat.

2) Autolikidazioaren araubidea aplikatzen den kasuetan, subjektu pasiboek autolikidazioa egin beharko dute udal administrazioak eskura jartzen dituen inprimakietan. Betebehar hori ez betetzea tributu arloko arau-haustea da, Ordenantza fiskal orokorraren III. kapituluaren xedatzen denaren arabera zehazten ahal dena.

Tramitazio laburreko araubideari lotutako lizentzien kasuan edo lizentzia jakinarazien araubide bereziari lotutako kasuan eskatzaileak ondokoak aurkeztu beharko ditu, lizentzia-eskabidearekin batera: autolikidazioko agiria, behar bezala beterik, eta ordainagiria. Autolikidazioa ordaintzeak ez dakar berekin lizentzia ematea, eta ordaindu izanaren gaineko ziurtagiria erretiratu beharra dago, behin bideratu eta gero, lizentzia kudeatzen duen bulegotik.

Erantzukizuneko aitortpena edo aurretiazko komunikazioa aurkezteko eskatzen den obretan, aitortpenarekin edo komunikazioarekin batera autolikidazioko agiria aurkeztuko da, behar bezala bete, bai eta ordainagiria ere.

3) Subjektu pasiboak aurkeztzen duen hasierako autolikidazioaren ordainketa edo zerga arloko administrazioak onetsitako hasierako likidazioarena behin-behinekoa izanen da, eta behin betiko ordaindu behar duen kopuruaren konturakoa.

10. artikulua. 1) Nahitaezko lizentzia eman edo erantzukizuneko aitortpena nahiz aurretiazko komunikazioa aurkeztzen denean, interesdunek aurkeztzen duten aurrekontuaren arabera zehaztuko da autolikidazioaren zerga-oinarria edo hasierako likidazioa, betiere dagokion elkargo ofizialak ikus- onetsi badu, hura nahitaezko baldintza denean. Bestelakoetan, udal teknikariek zehaztuko dute zerga-oinarria, egitasmoaren kostu zenbatetsian oinarrituta.

2) Eraikuntza, instalazioa edo obra egiteko proiektua aldatzen bada, eta horren aurrekontuak goiti egiten badu, behin Udal Administrazioak aldaketa onartu eta gero, zergaren likidazio osagarri bat onetsiko da, hasierako aurrekontuaren eta aldatuaren arteko aldea dela eta.

11. artikulua. 1) Behin eraikuntzak, instalazioak eta obrak bururatu eta egiazki egin direnak ikusita, gehienez ere hiru hilabeteko epean haien amaiera edo behin-behineko onarpenetik aitzina, tributudunak deklarazio bat aurkeztuko du inguruabar hori azalduz eta eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren benetako eta egiazko kostua adieraziz, eta, deklarazioarekin batera, obraren zuzendari eskudunak haren gainean emandako egiaztagiria, betiere dagokion elkargo profesionalak ikusonetsia, eta, halakorik behar izatera, kostu hori egiaztatzeko fakturak edo bestelako agiriak, 12.3. artikuluan aipatzen baitira. Tramitatu behar baldin bada jarduera baten abiatzea edo eraikin edo instalazioen lehen erabilera, dokumentazio hori behar den lizentziaren eskaerarekin batera aurkezten ahal da, edo dagokion erantzukizuneko aitortpena edo aurretiazko komunikazioa aurkezten delarik.

2) Subjektu pasiboak behartuta daude bukatutako eraikuntza, instalazio edo obraren benetako kostuaren gaineko aitortpena aurkeztera, nahiz eta hasierako autolikidaziorik aurkeztu ez eta Administrazioak kontzeptu hori dela medio aurrez ordaintzeko ez errekeritu.

3) Behin benetako kostua ezagututa, eta administrazioak egitekoa den egiaztapena eginik, tributu arloko administrazioak behin betiko likidazioa egingen du, subjektu pasiboak hasieran autolikidatutako kuotarekin dagoen diferentzia positibo edo negatiboaren gainean, halako eran non, behar izatera, subjektu pasiboari behar den kopurua galdatu edo itzuliko baitzaio.

4) Eraikuntzen, instalazioen edo obraren bukaerako datatzat joko da Zuzenbidean onargarri den edozein frogabide erabilia xedatzen ahal dena, eta partikularki, haiek zer xede edo erabileratarako aurreikusi eta gerora inongo jarduketara material egin gabe horiek betetzeko prestatuak dauden uneari dagokiona.

5) Baldin eta eraikuntzak, instalazioak edo obrak gauzatu bitartean zergaren subjektu pasiboaren aldaketa edo ordezkapena gertatzen bada, bukaerako likidazioa obrak noiz amaitu eta data horretan subjektu pasiboa denari egingen zaio.

12. artikulua. 1) Udal Administrazioak egiaztatuko du autolikidazioak ordenantza honetako arauak zuzen aplikatuz egin direla eta, beraz, kalkulaturako oinarri eta kuotak arau horien emaitza dela. Xede horrekin, Udal Administrazioak kasu guztietan egiaztatuko du autolikidazioetan jarritako oinarria dela interesdunek kasuan-kasuan aurkeztutako aurrekontuan, fakturretan edo kostu erreala justifikatzen duen ziurtagirietan agertzen den bera.

2) Udalaren Administrazioa autolikidazioekin ados ez badago, likidazioak egingen ditu, gaizki aplikaturako kontzeptuak edo datuak eta akats aritmetikoak zuzenduta, berandutzaren interesak kalkulaturako ditu eta behar diren zehapenak ezarriko ditu. Orobat, subjektu pasiboak deklaratu ez dituen zergapeko egintzen likidazioa egingen du.

3) Udal Administrazioak errekerimendu egiten ahalko dio subjektu pasiboari, eraikuntza, instalazio edo obraren kostu egiazkoa jaso dezan, hala nola behin betiko aurrekontua, obraren ziurtagiria, exekuzio kontratuak, proiektuari dagokion kontabilitatea, obra berriaren deklarazioa edo bestelako edozein dokumentu. Eskatutako agiriak aurkeztu ezean, edo osatu gabe aurkezten badira, edo haietatik ezin

bada atera benetako eta egiazko kostua, Udal Administrazioak zerga-oinarria zedarrituko du, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorrean ezarritako prozedurarekin bat.

13. artikulua. Lizenziaren titularrak edo aitortzaileak uko egiten badio baimendutako obrak, eraikuntzak edo instalazioak egiteari, espresuki eta idatziz egin ere, Antsoaingo Udalak zerga honen kontura ordaindutako zenbatekoak itzuliko dizkio.

Orobat, behin lizentzia bat iraungita, Antsoaingo Udalak zenbateko horiek itzuliko ditu, salbu lizenziaren titularrak hori berritzeko eskatu eta Udalak baimentzen badu.

ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

14. artikulua. Tributu arloko arau-hausteen kalifikazioari nahiz kasu bakoitzean horien ondorioz ezarri behar diren zehapenen xedapenari dagokien orotan, Ordenantza fiskal orokorrean xedatuari egingen zaio men.

KARGA TASA

Ezarri den tasa %5 da.